



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

GIZARTE ONGIZATE BATZORDEAREN AKTA

EGUNA: 2019ko martxoaren 25a

TOKIA: Udal batzar gela 1

ORDUA: 18:30etan

AZTERGAIAK:

1. 2018ko abenduaren 12ko aktaren onespena ,hala badagokio.
2. Ondarroa Lagunkoia proiektua eta Dublineko 2013ko adierazpena.
3. Lagundutako bainua 2019ko udaldia.
4. 2019ko Ongizateko taldeentzat dirulaguntzak.
5. Taldeetako ekarpenekin,2019ko egutegia osotzea.
6. Eskari-galderak

BERTARATUAK:

Rakel Elu, Batzordeburua
Esti Artetxe, EH Bildu
Nerea Ibarzabal, Gorabide egoitzako zuzendaria
Inma Laka, Gorabideko familiarra
Juanjo Bedialauneta, Danon Artin
Pello Urresti, Antiguako Ama Elkartea
Idoia Arrizabalaga, Alzheimer Ondarru-Afagi Elkartea

Aldez aurretik ezin etorria abisatu dutenak Karenka eta Arnasa elkartekoak.

ESANDAKOAK

1.- Aurreko bilerako akta aho batez onartu da.

2.- Puntu honetan Rakel, batzordeburuak eman ditu azalpenak, Bizkaiko Foru Aldundiak urteak daramatzala honelako proiektuak bultzatzen, zahartzaro aktiborako proiektuak, 2013-2020 urteetan zehar egitekoa dela egitaraua eta Ondarroa ere orain sartu nahi dela, eskualdeko beste herri batzuk ere sartu diren bezala. Baina proiektu honen oinarria bultzatzaileak edadetuak eurak izatea denez, talde horrekin ondo landu arte ez dela urratsik eman eta orain aurrerapausu hori egin denez, aurrera egiteko momentuan dagoela egoera. Dena den, horretarako lehenengo Dublineko 2013ko adierazpenarekin bat etorri behar dela. Adierazpen idatzia irakurri ondoren batzordekide guztiek ados daudela adierazi dute adierazpen horrekin eta udal plenora joango dela esan da bertan onartzeko.

Adierazpen hori onartu ondoren plan aktiboa jarri behar da martxan eta horretarako bi aukera aurkeztu dira batzarrean, Ondarroa adinekoekin hiri adeitsuan izen buruarekin, bata Bizitzen fundazioak aurkeztua eta bestea AZ taldeak. Biak aukera onak ikusi dira baina AZren aldeko adostasuna lehenestu da, Lea Ibarra Amankomunazgoko



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

udalerriekin egindako lanean oinarrituta. Hasiera batean herriko diagnostikoa egingo litzateke eta hori bideratzeko 10 pertsona bueltakoa taldea izango da talde traktorea. Gehienak 60 urteetakoak izango dira eta talde desberdinetako ordezkariekin osatua. Hau aurrera eramateko hilaren 28an bilera izango da Antiguako Ama elkartean.

Proiektua aurrera eramateko Bizkaiko Foru Aldundiak diru laguntzak ditu eta eskaera bideratuko da.

19:15etan batzarretik Inma Laka irten egin da.

3.- 2019ko udaldirako bainu lagundua dela eta, bilerak egin dira Karenka, udaltzainburua, ongizate eta hirigantzakoekin. Bilera horietatik ondorioztatu diren adostasunekin, bi idatzi bidali dira gizarte zerbitzuetatik hirigintzara, besteak beste ondorengo hau eskatzen: aurtengorako hobekuntza lez bi pasarela ipintzea eta erdi gunean biak elkartzea eta eskailera inguruan ranpa ipintzea. Gero hirigintzatik, gizarte zerbitzuetako eskaria ikusita, Costasera bidali da beste eskutitz bat baimena eskatzen.

Batzordekideek uste dute monitore egokiak topatzeko zabaldu behar dela lan aukera hori eta baldintza da Lanbiden apuntatu behar direla.

4.- 2019ko aurrekontua dela eta diru partida haundiagoa izango da, iaz murriztua izen zelako. 2018ko aurrekontuan 4.500€-ko partida ipini zen baina 7.800€ eskatu ziren talde guztien artean. Gertaera hau aurreko batzordean komentatu zen eta batzorde hartan diru partida handiagoaren beharra dagoela ikusi zen. Horren aurrean, 2019ko aurrekontuan 8.000€ jarri dira aurtengo ongizateko dirulaguntzetarako.

5.- Aurtengo urterako taldeak hasi dira aurtengo ekintzak zehazten baina falta direnei bidaliko zaie egutegia bertan ipintzeko 2019rako aurreikusita dituzten ekintzak eta datak eta gero bueltatzeko udalari horren berri.

6.- Antiguako Ama elkarteko ordezkariak azaldu du, elkarteko 85 urte dituzten kideei omenaldia egin zietela eta oparitu bana banandu zitzaizela. Horren ostean, 85 urtetik gora duten bazkide guztiei ere oparitu berdina banandu dietela. Bestetik, bolondresen lana dela eta jende gehiago behar dela, partaidetza bultzatzen jarraitu behar dugula guztiok.

Denon Artin elkarteko kideak elikagaien jasoketaren inguruko informazioa eman du. Beronek ere boluntarioen partaidetza eskatu du. Baita dirulaguntzaren premia eta lokal egokiago baten premia ere azaldu du.

Ondarroa 2019ko apirilaren 9a
Udal gizarte langilea